



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER


Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO




Gau bat aterpetxean

6 UNITATE
DIDAKTIKOA

IPUINA
TESTU LUZEA


Izenburua/Título:	NAHIKO! BERDINTASUNERAKO, ERRESPETURAKO ETA BIOLENTZIA-EZARAKO HEZKIDETZA PROGRAMA NAHIKO! Programa Coeducativo para la Igualdad, el Respeto y la No-violencia
Zuzendaritza eta koordinazioa Dirección y coordinación:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer Manuel Iradier, 36 01005 Vitoria-Gasteiz www.emakunde.euskadi.net emakunde@ej-gv.es
Gauzatze/Realización:	OREBE HEZKUNTZA S.L. Aholkularitza eta Zerbitzuak/Asesoría y servicios educativos
Argitalpena/Edición:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea EMAKUNDE/Instituto Vasco de la Mujer
Deskribatzaileak/ Descriptores:	Hezkidetza, Genero-indarkeria, Ikasmateriala, Lehen mailako irakaskuntza Coeducación, Violencia de género, Material didáctico, Enseñanza de primer grado
ISBN	ISBN: 978-84-89630-25-3



Behin bazen, egun batzuk aterpetxean pasatzeko astea Berdinland herriko eskolan.


Goizeko lehen ordua zen eta neska-mutilak, elkar agurtu ondoren, autobusera igotzen ari ziren.

- Egun on, Mikel! Dena prest? -esan zion maisuak ondoko mutilari.
- Egun on, maisu! Bai, dena ekarri dut -erantzun zuen mutilak.



Bidaia, planak egiteko aprobetxatu zuten:
hondartzan jolastu, mendiko ibilaldia egin,
eskulanak egin, piraguan ibili eta bainatu...





Gero bakoitzak ondo pasatzeko ekarritakoa
esan zuen: soka, musika, baloi erraldoia...

- Hara! Zenbat plan eta gogo ezberdin! Ados jarri beharko dugu, bestela arazo eta gatazka bat baino gehiago izango dugu. Zer ekarri duzue elkarrekin ondo konpondu eta ondo bizitzeko? -galdetu zien maisuak.






- Nik jolaserako eta lanerako gogoia ekarri dut.
- Nik entzuteko eta hitz egiteko gogoia!
- Nik pazientzia eta jakin-mina.
- Nik umore ona!

Eta guztiek barre egin zuten.




- Eta elkarrekin kantatzeko gogoak? -galdetu zien maisuak.
- Baiiii! -erantzun zioten, eta kantuan hasi ziren:

♪♪ Neskek eta mutilek / elkarbizitza egin,
arazoak konpondu / guztion etekin,
bai lana ta bai festa / banatzeko berdin,
berdintasun bidea / egin elkarrekin. ♪♪




Iritsi zirenean, aterpetxeak aurrean hondartza
eta itsasoa zituela ikusi zuten.



Bakoitza bere motxila hartu eta logelara abiatu zen, nork bere ohea aukeratu eta gauzak bertan lagatzeko.





Logelan sartu zirenean, ohatze pila zeudela
ikusizuten.



- Hemen, hemen jar gaitezke laurok! Bi goian eta bi behean -esan zien Txikik, Luze, Bero eta Leireri.
- Arazo bat dugu. Anderrek hartu du beheko ohea. Ze pena! -esan zuen Luzek.



Laurek elkarren ondoan egin nahi zuten lo. Beste leku batera aldatzea pentsatu zuten, baina ez zeuden beste bi ohatze guztiz libre.

- Ilusio hori nuen. Zer egin dezakegu? -esan zuen Berok.
- Anderri aldaketa eskatuko diot, agian ez zaio ajolik beste leku batean jartzea -esan zuen Leirek.



Esan eta egin. Leirek zer gertatzen zitzaion
azaldu zion Anderri. Anderrek berdin zitzaiola
esan zion, baldin eta beheko ohean lo egiten
bazuen. "Behin goiko ohetik erori nintzen"
esan zion Leireri.



Beste ohatze batean beheko ohea libre zegoenez, Ander lekuz aldatu zen eta lau lagunak, Anderri eskerrak hamaika aldiz eman ondoren, elkarren ondoan jarri ziren.



Eguraldi eguzkitsua egiten zuenez,
hondartzara joatea erabaki zuten.







Hotz, Trebe, Tximista eta Mikel lagun onak
ziren eta toallak elkarren ondoan zabaltzea
erabaki zuten.



- Baloiarekin jolastuko gara? -galdetu zien Hotzek.
- Gazteluak egingo ditugu? -proposatu zien Mikelek.





Trebek txanperoarekin jolastu nahi zuen eta
Tximistak disko hegalariaekin.



Arazo bat zuten. Alde batetik elkarrekin jolastu nahi zuten baina, bestetik, bakoitzak jolas batekin jolastu nahi zuen.

- Nola konpondu dezakegu? -galdetu zuen Hotzek.
- Gauza bat egin dezakegu: lehenengo bakoitzak nahi duen jolasarekin jolastu dadila eta, gero, denok elkarrekin beste zerbaite-ra -esan zien Mikelek.



Esan eta egin. Bakoitzak beste ikaskide
batzuekin elkartu eta nahi zuena egin zuen.
Hotz baloiarekin jolastu zen.





Mikelek hondarrez gazteluak egin zituen.

Trebek txanperoarekin itsasertzean jolastu
egin zuen.





Eta Tximista disko hegalariaekin aritu zen
denbora luzez.



Laurak berriro beren toaletan elkartu zirenean,
kartetan jolasten hasi ziren:


- Mikel, oso ideia ona izan duzu -esan zuen Tximistak.
- Beste lagunekin jolasteko eta egoteko auke-
ra izan dugu! -gehitu zuen Trebek.





Eguerdi aldera "nahi dutenentzat bainatzeko ordua!" esan zuen ozenki maisuak.

"luuupi! Uretara!", esan zuten Txikik eta bere lagunak uretara hurbiltzen ziren bitartean.



Ura hotza egon arren, ikasle asko eta
maisua bainatu ziren.



Batzuk piraguan ibili ziren.






Beste batzuek, berriz, hondartzan jolasten jarraitzea edo etzanda eta berriketan geratzea nahiago izan zuten.

Bainatu ondoren, sentitzen zuten goseak
bazkaltzeko ordua zela gogoratu zien guztiei.
Beraz, bazkaria prestatzen hasi behar zen.



Esan eta egin. Guztion artean bazkaria
prestatzen hasi ziren.






Baina gatazka bat sortu zen. Guztiek jakiak prestatu nahi zituzten, baina inork ez zuen gero gauzak jaso eta garbitzerik nahi. Ez ziren ados jartzen. Nola konpondu zezaketen egoera hura?




Orduan Anak esan zien:

- Txandak egin ditzakegu. Batzuek eguerdian sukaldatu eta besteek gauean. Eta garbiketa alderantziz. Zer iruditzen zaizue? Horrela guztiok dena egingo dugu, gustukoa eta ez hain gustukoa.



Guztiek baietz esan zuten. Batzuek janaria
prestatu zuten eta beste batzuek plateretan
jarri zuten.



Azkenik, talde batek mahaia jarri zuen.




Eta, bazkaldu ondoren, garbiketa taldeak dena jaso eta garbitu zuen.

- Hau ere dibertigarria da -esan zuen batek.
- Eta gauean, sukaldatzea tokatuko zaigu!
- gehitu zuen beste batek.



Arratsaldean bakoitzak nahi zuena egiteko
denbora izan zuen. Batzuk txirrista eta
kulunketan ibili ziren.







Beste batzuk dama-jokora jolastu ziren.



Talde batek eskulanak egin zituen.



Eta batek kometa aireratu zuen. Bakoitzak
nahi zuena eta nahi zuenarekin.



Bat-batean, iluntzen hasi zenean, aterpe-
txearen atzean zegoen basotik neska-mutil
talde bat irten zen bere motxilekin. Adin
berekoak ziruditen.




Denak harrituta geratu ziren. Iritsi berriek ez zuten inor aurkitzerik espero eta aterpetxean zeudenek ez zuten inor etortzerik espero.



- Kaixo! Hemen lo egitera gatoz -esan zien batek.
- Gu gaude hemen, guk egingo dugu lo hemen -erantzun zieten guztiek.
- Maisu, arazo bat dugu! Arazo potolo bat! -oihukatu zuen Enekok.







Taldearekin zetorren maistra maisuarekin hitz egitera joan zen. Berehala konturatu ziren aterpetxearen erreserba-bulegoan talde biei gau bera erreserbatu zietela bertan lo egiteko.



- Eskolara deitu beharko genuke, baina berandu da -esan zuen maistrak.
- Gainera, gaua pasatzeko duten ilusioarekin...
-erantzun zuen maisuak.
- Bai, egia da. Guztiontzat lekua egongo balitz...
- Egia da. Baina, zer egin dezakegu?



Neska-mutilek horrela esan zieten:

- Hemen leku asko dago jolasteko, afaltzeko... denetarako. Arazo bakarra lo egitekoa da.
- Gela bakarra dago, baina ohatzeak handiak dira, binaka egin dezakegu lo.
- Bakarrik gau bat da, ez du inportik hain eroso ez bagaude.



Adostasuna zabaldu zen guztion artean.
Horrela erabaki zutenean, talde biak asko
poztu ziren.






Esan eta egin. Guztiak logelara joan ziren eta ohatze erdiak libratu zituzten talde etorri berriarentzat. Gero, guztien artean, gaueko plana egin zuten:



- Gure asmoa gau-jaia egitea da -azaldu zuen izaskunek.
- Gurea ere bai! Talde bakoitzak bere emanaldia prestatu dezake -esan zuen beste gelako batek.
- Hain ona egiten duenez, kanpoan afaldu dezakegu eta gero, festa ere, izarpean egin -proposatu zuen azkenak.
- Baiiii! -erantzun zuten guztiek.





Esan eta egin. Lehendabizi afaria prestatu
zuten guztien artean.



Gero aterpetxearen aurreko zelaian mahaiak
jarri eta afaldu egin zuten.





Eta dena jaso zutenean gau-jai ederra
egin zuten.

Festa txotxongilo emanaldiarekin hasi zen.



beldurrezko ipuinak...





Bukatzeko, dantza egin zuten oso berandu arte.

Jaia bukatu, dena jaso eta oheratu zirenean,
neska-mutilek elkar agurtu zuten:

- Oso ondo pasa dugu. Mundiala izan da.
Bihar gehiago.
- Ondo lo egin!
Amets onak izan!



Isilik egon eta lo egiteko garaia iritsi zenean,
guztiek kantatu zuten:

♪♪ Neskek eta mutilek / elkarbizitza egin,
arazoak konpondu / guztion etekin,
bai lana ta bai festa / banatzeko berdin,
berdintasun bidea / egin elkarrekin. ♪♪

